

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### Eginkizunak eskuordetzea. Arloko Zinegotzi Ordezkariek izendatzea. Aldaketa

IKUSI EGIN DA Udalbatzak 2015eko ekainaren 30ean izandako Osoko Bilkuran hartu zuen erabakia, udal departamentuen egitura osatzen arloei buruzkoa eta alkate-udalburuak 2015eko uztailaren 1ean emandako 1.497 Dekretua, zinegotzi ordezkeri laguntzaileak izendatzekoa.

IKUSI EGIN DA Osoko Bilkurak 2015eko irailaren 26an hartutako erabakia, zeinaren bidez aldatu zen ekainaren 30ean Osoko Bilkurak hartutako erabakia. Halaber, ikusi egin da alkate udalburuak idazkeriari helarazitako idatzia, zinegotzi ordezkeri laguntzaileen aldaketei buruzkoa.

IKUSI EGIN DA Udalaren Antolamendurako Araudiaren 32. artikuluan xedatuta datorrena Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 43.5 b artikuluari buruz. Erregelamendu hori azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez etorri zen.

KONTUAN HARTU DA Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 16. artikuluan sinadura eskuordetzearen inguruan xedatutakoa.

KONTUAN HARTUTA arestian adierazitako guztia eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua ematen dizkidan eskumenak, alkate-udalburu gisa,

#### DEKRETATZEN DUT

LEHENENGOA. Aldatzea zinegotzi ordezkeri laguntzaile hauek:

2. Arloa. Funtzio Publikoa eta Lan-harremanak. Baliogabetzea Iñigo Martinez Cerrilloren izendapena eta Jon Ander Altube Lazkano izendatzea Arloko zinegotzi ordezkeri laguntzaile.

5. Arloa. Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurunea. Baliogabetzea Jon Ander Altube Lazkanoren izendapena eta izendatzea Amets Meza Castañares Arloko zinegotzi ordezkeri laguntzaile.

6. Arloa- Kultura, Kirolak eta Jaiak. Osoko Bilkurak 2016ko irailaren 26an hartutako erabakiaren bidez bi azpiarlotan banatu da:

Kultura eta Kirol Azpiarloa: baliogabetzea Amets Meaza Castañaresen izendapena.

Jaien Azpiarloa: eustea Amets Meaza Castañaresen izendapenari.

BIGARRENA. Aurrekoari jarraikita, hauek dira arloetako zinegotzi ordezkeri laguntzaileak:

1. arloa. Alkatetza. Ez da ezer eskuordetzen.

2. arloa. Funtzio Publikoa eta Lan-harremanak:

Zinegotzi ordezkeri laguntzailea: Jon Ander Altube Lazkano

3. Arloa. Ogasuna eta Ondarea:

Zinegotzi ordezkeri delegatua: Amets Meaza Castañares.

4. Arloa. Hirigintza eta Ingurumena.

Zinegotzi ordezkeri laguntzailea: Jon Ander Altube Lazkano

5. Arloa. Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurunea.

Zinegotzi ordezkeri delegatua: Amets Meaza Castañares.

6. Arloa. Kultura, Kirolak eta Jaiak.

Kultura eta Kirol Azpiarloa: ez da ezer eskuordetzen.

Jai Azpiarloa:

Zinegotzi ordezkari delegatua: Amets Meaza Castañares.

7. Arloa. Gizarte Ongizatea, Osasuna eta Lankidetzaz:

Zinegotzi ordezkari laguntzailea: Isabel Boveda Urioste

8. Arloa. Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria:

Zinegotzi ordezkari laguntzailea: Amets Meaza Castañares.

9. Arloa. Euskara: ez da ezer eskuordetzen.

10. Arloa. Tokiko garapen Agentzia:

Zinegotzi ordezkari laguntzailea: Iñigo Martínez Cerrillo.

HIRUGARRENA. Arestian adierazi diren arloetako zinegotzi ordezkari laguntzaileei eskuordetzea alkate-udalburuaren ordezkari sinatzeko eskumena, udal arloen barruko izapidezko egin-tzetarako nahiz hirugarrenetik ebazpenez besteko komunikazioetarako eta zinegotzien eskariz alkate-udalburuak gobernu nahitaezko organoei edo organo osagarriari egiten dizkien proposamenak sinatzeko eskumena.

Sinadura eskuordetzan hartuta izenpetzen diren dokumentuetan eskuordetza hori jasota geratu behar da eta, horretarako, nahikoa izango da alkate-udalburuaren izenaren ondoan, "sinadura eskuordetzan hartuta" idaztea.

LAUGARRENA. Hauek izango dira zinegotzi ordezkari laguntzaileen zereginak:

- a) Arloa kudeatzea alkate-udalburuaren zuzendaritza gorenaren menpe.
- b) Gobernu organoen jarraibideak eta erabakiak betetzen direla zaindu eta kontrolatzea.
- c) Gobernu organoen eta horien informazio-organoen osagarrien esku uztea euren eskumeneko gaien inguruko ebazpen-proposamenak, alkate-udalburuak sinadura eskuordetzan utzita.
- d) Arloko aurrekontu proposamena prestatzea.
- e) Jarduera-planak eta -programak prestatzea.
- f) Arlo barruko eskumenen gaiak ebaztea eta beste Arloekikoak sustatzea, alkate-udalburuaren bitartez.
- g) Arloko langileen agintaritza izatea alkate-udalburuak, hau da, langileen buruzagi nagusiak emandako arauen barruan.
- h) Arloko funtzionamenduari dagokionez barne-agindu, zirkular eta jarraibideak ematea.
- i) Alkate-udalburuak esanbidez eskuordetzen dizkien guztiak.

BOSGARRENA. Kasu bakoitzean alkate udalburuak emango duen dekretuz ebatziko duen ordezkari araubideari lotuta egongo dira aurreko ataletan aipatu diren arlo-eskuordetzen titularrak, ez-etortzeak, gaixotasuna eta barrak gertatzen direnean.

SEIGARRENA. Legez xedatutako ahalmenen kalterik gabe, alkate-udalburuak

- a) Gorde egingo du egindako eskuordetze bakoitzarekin egin den kudeaketaren inguruko informazio zehaztua jasotzeko duen ahalmena.
- b) Edozein unetan balio gabetu ahalko du eskuordetzea, eskudantzia eskuordetuen erabilera berreskuratzeko; horretarako, eskudantziak emateko behar diren baldintza berberak bete behar dira.

c) Bereganatu ahalko du zinegotzi ordezkari laguntzailearen zuzendaritza eta kudeaketapean dauden gaien ezagutza.

d) Koordinatu egingo ditu arlo desberdinen parte-hartze bateratua eskatzen duten departamentu edo zerbitzuen programa, proiektu edo udal ekimenak.

e) Bere gain izango ditu Legean adierazi diren baina esanbidez Dekretu honen bitartez bere esku utzi ez diren eskudantzia guztiak nahiz.

ZAZPIGARRENA. Dekretu bidez alkate-udalburuak eskuordetutako eskumenak ezin zaizkio beste inori eskuordetu eta indarrean dauden legeak zorrozki beteta egikarituko dira, sinatzen den egunetik hasita baliozkoak izatearen kate barik.

ZORTZIGARRENA. Aditzera ematea Dekretu hau interesatuei, udal arloei nahiz udal talde politikoei eta, aginduzkoa denez, ALHOn argitaratzea.

Laudio, 2016ko irailaren 26a

*Alkatea*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*